

Hiztun erroldak, *labelak* eta euskaldunak

Xabier Isasi Balanzategi

Banaketa geolinguistikoa eta hiztun multzoen bilakaera urterik urte edozein hizkuntza plangintzaren oinarriak dira. Jakintza alor honek berarizko metodologia behar du. Artikulu honetan, bada, Zentsu eta Udal Erroldako datuen azterketarekin batera, hiztun sailkapenerako irizpideak eta hiztunen zenbaketarako oinarriak jorratzen dira. Hizkuntzen arteko ukipen egoera, egoera aldakor bezala hartzen da; horren bilakaerak ez du, halabeharrez, norabide bakarra. Euskararen berreskurapen prozesuan behatutako aurrerapausoak ukaezinak badira ere, galerak eta atzerako joerak datuetan bertan antzeman daitezke. Horiek bere osotasunean aztertutik datozen urteotako aldaketak zein nolakoak izan daitezkeen adieraz diezagukete. Horri heldu nahi izan diogu artikulu honetan.

In order to analyze the demolinguistic division in that way, assessment methods, speaker classification criteria, geolinguistic divisions and the development of groups of speakers on an age basis provide, among others, a basis for any language planning. This field of knowledge needs its own kind of methodology. In this article, speaker classification criteria and the basis for counting speakers, together with an analysis of data from local registries and census figures are roundly criticized. "Hizkuntza arteko ukipen egoera" is taken as an erratic situation; its development is not necessarily the only course. Even though the progress observed in the process of the recuperation of Basque is undeniable, losses and setbacks are also apparent in the same data. Analyzed as a whole, this can tell us the changes and the nature of the changes there might be over the coming years. We have wished to stick to that throughout this article.

Euskal Herrian gaudela esatean batzuek *Euskal Autonomi Elkartea* ari garela pentsa dezakete, baina *Euskararen Herrian* gaudela esatean edonork ulertzen du zertaz ari garen. Hizkuntzek mugak jartzen dituzte, zentzu hertsian *esana* (esangura) mugatu egiten baitute, edo beste ikuspegitik, zehaztu ere. Horrela egun Euskal herrietan edozein hiritar *euskalduna* da, *Euskararen herrietan*, ostera ez; euskalduna euskara duena baita.

«Egun euskal herrietan edozein hiritar euskalduna da, Euskararen herrietan, ostera ez; euskalduna euskara duena baita»

Gure gaurko gizarte merkatu honetan salgai orori *jatorrizko izendapena* ezarri behar zaio, jakin behar baitugu nongoa zer den, kalitatea tarteko omen. Dagoeneko ez gaitu harritzen *eusko labelak*; izan ere izugarrizko lorpena izanik guk geuk eskuragai guztiei *labela* bilatzen baitiegu. Gure mendiko abelgorriak, ardoak, barazkiak eta arte-lanak merkatura orduko *labela* behar dute nonbait; *labelik* ez duenak ez du piperrik ere saltzen, edo, saltzekotan oso susmagarritzat hartu ohi da.

Dena den *label* guztiak ez dira guztion gustokoak, esaterako euskarak eta euskal kulturak ez dute *labelik*, horren dira sakratuak eta handiak non adjektiborik ez duten merezi ere. Beste hizkuntza eta kulturekin nahasian bizitzeko lehia gorrian jarrita dago euskara. Horregatik gure alor honetan kultur ekarpenak ez du axola nork sortua edo nongoa den, are harrigarriagoa kultura zenbat eta urrunagoko eta zenbat eta hedatuagoa izan orduan eta hobe dela hartu ohi da. Nazioarte mailakoa onena omen, eta jakina, gurea ez da nazioartekoa. Horra hor kasurako *Guggenheim* sonatua, horra hor kultura salgai, zein *label* etako baina?

«Euskarak eta euskal kulturak ez dute *labelik*»

Esanak esan geureari hel diezaiogun, euskara, Zentsuak eta Udal Erroldak. Jakina da 1981 urtean aurreneko, 1986an gero eta 1991n atzenen Euskal Herriko zenbait lurraldetan euskarari buruzko hainbait itaun edo galdera egin izan direla. Euskal Autonomi Elkartean 1981ean *euskararen ezaguerari buruzko 4* item sartu ziren, *ulermena*, *mintzamena*, *irakurmena* eta *idazmenari* buruzkoak hain zuzen ere. Hurrengo Udal Erroldan Nafarroara hedatu zen eta EAEn *ama hizkuntzari* (Jatorrizko hizkuntza alegia) buruzko galdera berri bat sartu zuten; eta azkeneko Zentsuan (1991) beste bat etxean erabiltzen den hizkuntza deitutakoa, gazteleraz honela galdetzen da: ¿Qué lengua habla Vd. en su casa más a menudo?, eta euskaraz: Zein hizkuntza erabiltzen duzu zuk maizen zure etxean?

Baina zertarako erabil daiteke horrela bildutako informazioa? Batzuen esanetan hizkuntz politikarako funtsezkoa da. Informazio zuzena eta zehatza izatea, denok dakigunez,

erabakiak hartzeko ezinbestekoa baita. Hori egia bada ere ez dituzte hizkuntz arazoa duten herrialde guztietan hiztunen erroldak edo zentsuak burutzen; Belgika adibidez. Beste batzuetan mende bat baino gehiago Zentsu eta Udal erroldetan hizkuntzari buruz galdezka aritu dira, Gales kasurako. Horrela pentsa genezake hizkuntz politikarako hobe dela Galesen eredu Belgikarena baino. Norberak kontuak atera ditzala.

Azken buru Zentsu eta Udal Errolden helburuetariko bat, besteak beste, gizarte errealitateari labelak ezartzean datza. Horrela iharduera politikoa zenbait eremutan ebaluagarria suerta daiteke; hau da, Zentsu eta Udal Erroldetatik ateratako informazioa gizartearen hainbait parametro-aldaketaren berri emateaz gain aldaketak sortarazteko diseinatutako plangitzen ebaluaketarako balio du.

Zentsuak eta Udal Erroldak gutxi bailiran Inkestak ere egiten dira antzerako helburuekin omen. Horrela berez anitza eta konplexua den gizarte errealitatea kategoriatara ekarrita manipulagarriagoa delako. Hizkuntz politikarako hori izaten dugu abiapuntua hain zuzen ere. Agian hizkuntz politika baino, kasu honetan behintzat, politika demolinguistikoa esan beharko genuke. Abiaturua, beraz, labelak, edo, akaso aurren informazioa jaso eta, behin jasota eta sailkatuta, kategoriatara horiei izena (labela) eman?

Hori da gure artean egiten dena ikus dezagun.

Hiztunen sailkapen desberdinak

1. Tipologia estatistikoa.

Tipologia estatistikoa erabilitako neurketa prozeduretatik zuzenean eratoritzen den aurreneko sailkapen motari deritzogu. Hots, a priori ezarritako neurketa prozedurak ondorengo sailkapena zehazten du. Esandako sailkapena alda daiteke neurketa prozedura bera aldatuz edo datuen lanketan zenbait baldintza ezarritik.

1.a.) Euskararen ezaguera maila. Hiztunen tipologia estatistikoa:

- Euskaldun alfabetatuak: euskaraz ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten duten pertsonak.

- Euskaldun partzialki alfabetatuak: euskaraz ondo ulertu eta hitz egin, baina nekez irakurri eta idazten duten pertsonak.

- Euskaldun alfabetatugabeak: euskaraz ondo ulertu eta hitz egin, baina ez irakurtzen eta ez idazten ez dakiten pertsonak.

«Ez dituzte hizkuntz arazoa duten herrialde guztietan hiztunen erroldak edo zentsuak burutzen; Belgika adibidez. Beste batzuetan mende bat baino gehiago Zentsu eta Udal erroldetan hizkuntzari buruz galdezka aritu dira, Gales kasurako. Horrela pentsa genezake hizkuntz politikarako hobe dela Galesen eredu Belgikarena baino. Norberak kontuak atera ditzala»

«Gure ustez ia euskaldunen kategoriaren esanahia politikoa baino ez da»

«Elebidun funtzionala, euskaldun elebakarra, euskaldun berri aktiboa, ... berreskurapen biziko udalerrak, eutsi indar handikoak, ... Horietako gutxiak azaltzen du euskararen benetako egoera eta are gutxiagok argitzen du hizkuntza zaharraren etorkizuna»

- *ia-euskaldun alfabetatuak*: euskaraz ongi edo nekez ulertu, nekez hitz egin eta ondo edo nekez irakurtzen eta idazten dutenak.

- *ia-euskaldun alfabetatugabeak*: euskaraz ondo edo nekez ulertu, nekez hitz egin eta ez irakurtzen eta ez idazten ez dakitenak.

- *ia-euskaldun pasiboa*: euskaraz ondo edo nekez ulertu eta baitere hitz egiten ez duten pertsonak.

- *Erdaldunak*: euskaraz ez ulertu eta ez hitz egiten ez duten pertsonak (Eustat 1981, 1986 eta 1991).

Zazpi hiztun kategoria horiek Zentsu eta Udal Erroldetako ezaguerari buruzko galderetatik zuzenean eratorriak dira. Aztertuz gero eman daitezkeen erantzunen konbinatoria hutsa dela antzeman daiteke, baina 81 kategoria posibleetatik (gehienak esanahigabeak) bakarrik zazpi onetsi dira. Hori da, hain zuzen ere, bildutako informazioarekin egiten den lehenbiziko galbahea, zer gertatzen da esandako zazpi kategoria horien arabera erantzuten ez dutenekin? Pertsona asko ez badira ere, gure ustez, estatistikoki talde esanguratsua izan daiteke, adibidez ez litzateke horren arraroa hiztun batek ondo hitz egin eta nekez ulertzen duela erantzutea; tankera horretako erantzunak sailkaezinak dira emandako tipologia. Are gehiago, populazio osoko neurketa izanik erantzun batzuk beste batzuk baino probableagoak dira eta hori probabilitate legeen arabera jakingarria da. Aldez aurretiko probabilitateen azterketa bat eginez probabilitate handiagokoa da *ia-euskaldunen kategoria erdaldunen* baino.

1.b.) Jatorrizko hizkuntzaren arabeko hiztunen sailkapena.

Jakina denez 86an jaso zen aurreneko horri buruzko informazioa Udal Erroldetan, EAEn bakarrik. Adituek ama hizkuntza esaten diote 3 urte baino lehenago ikasten denari, horrek definitzen du hiztun tipologi berri bat zeinen arabera hiztunak honako hauek izan daitezkeen:

- *Jatorrizko euskaldunak*: 3 urte baino lehenago euskara bakarrik ikasi dutenak.

- *Jatorrizko elebidunak*: 3 urte baino lehenago euskara eta gaztelera ikasi dituztenak (hauei aldibereko elebidunak esaten zaie).

- *Jatorrizko erdaldunak*: 3 urte baino lehenago gaztelera bakarrik ikasi dutenak.

Beste jatorrizko hizkuntzetako hiztunak izanagatik baztertu dugu hori lantzea; izan ere, amaigabeko tipologian sartuko ginateke, batetik, eta bestetik, ez da estatistikoki esanguratsua.

Sailkapen hau erabili ohi da aurreneko hiztunen bilakaera aztertzeko. Hots *euskaldun alfabetatuen* artean zenbat *jatorrizko euskaldun* dagoen zehazturik, gero euskararen aurrerapenak edo galerak izaten diren jakiteko. Mota honetako azterketak lehen aipatutako *Soziolinguistikazko Mapan* egiten dira.

Orain 1.a.) eta 1.b.) tipologiak nahasten baditugu *3 jatorrizko hiztun*, bider *7 hiztun mota* ezberdin, hogeitabat multzo ezberdin suertatzen zaizkigu. Soziolinguistikoki edota psikolinguistikoki guztiak gaitasun edo ezaugarri desberdinetakoak. Oso interesgarria zinez.

Aurrerapenak ez du etenik eta 91ko Zentsua hiztun tipologi berri bat ekartzeaz dago:

1.d.) Etxean *maizen* erabiltzen den hizkuntzaren arabera sailkapena.

Honen arabera ezer gutxi egin bada ere orain artean, itaunetatik erator daitekeen sailkapena honako hau da:

- *Euskal hiztuna: etxean maizeneuskarera erabiltzen dutenak (etxeko euskaldunak)*

- *Hiztun elebiduna: etxean maizen biak (euskara zein gaztelera) erabiltzen dituztenak (etxeko elebidunak).*

- *Erdalduna: etxean maizen gaztelera erabiltzen dutenak (etxeko erdaldunak).*

Kasu honetan, lehen egin bezala, *beste hizkuntzarena*, estatistikoki esanguratsua ez delako baztertzeko dugu, inor aspertu nahi ez dugulako hain zuzen ere.

Sailkapen berri honi atxikiz geureari lotuko gatzazki berriro ere. Zazpi ezagueraren arabera aurreneko, hiru jatorrizko hizkuntzaren arabera eta beste hiru etxeko *maizeneko* hizkuntzaren arabera, guztiak batera ekarriz, *zenbat hiztun mota desberdina tera daiteke?* Kasu honetan ezin biderketarik egin hizkuntz erabilera ez baita posible aurreneko hiztun mota guztiengan. Hau da, bidezkoa bada *jatorrizko euskaldun erdalduna*, ez da zilegi *jatorrizko euskaldun erdaldun etxeko euskalduna*. Zein da galbahea kasu honetan? Erabilera edo, gaitasun gisa adierazia, euskaraz egin ahal izatea.

«Euskarari eusteko-
tan iharduera gidatua
edota herri mugimendu sendoa behar dugu; gure ustez biak ezinbestekoak dira»

Korapiloa askatzeko *honako kontingentzi taula* hau eratu dugu, batetik *hizkuntz gaitasunaren* arabera sailkapena eta, bestetik, *jatorrizko hizkuntzaren* arabera, barruan, kasurik kasuko etxeko hizkuntzaren arabera sailkapena ezarri dugu.

I. Taula: Tipologia estatistikoak dakartzan hiztun mota posibleak.

HIZKUNTZ-GAITASUNA	JATORRIZKO HIZKUNTZA		
	EUSKALDUNAK	ELEBIDUNAK	ERDALDUNAK
EUSKALDUN ALFABETATUAK	1.Etxeko EUSKALDUNA 2.Etxeko ELEBIDUNA 3.Etxeko ERDALDUNA		
EUSKALDUN PARTZIALKI ALFABETATUAK	1.Etxeko EUSKALDUNA 2.Etxeko ELEBIDUNA 3.Etxeko ERDALDUNA		
EUSKALDUN ALFABETATUGABEA	1.Etxeko EUSKALDUNA 2.Etxeko ELEBIDUNA 3.Etxeko ERDALDUNA		
IA-EUSKALDUN ALFABETATUA	?	?	?
IA-EUSKALDUN ALFABETATUGABEA	?	?	?
IA-EUSKALDUN PASIBOA	3. Etxeko ERDALDUNA		
ERDALDUNA	3. Etxeko ERDALDUNA		
OROTARA kategoria kopurua	13-17	13-17	13-17

Oker ez bagaude gutxienezko hiztun-mota kopurua 39koa da eta gehienez 52koa, aldakortasun hori *ia-euskaldunen* multzoei zor diegularik. Horrexegatik jarri diegu hain zuzen galde ikurra.

Beraz zenbakietara jo baino lehenago aurreneko galbahe hori kontutan hartu beharra dago.

Hizkuntz politikarako tipologia

Hiztunen sailkapen hau izatez aurreko sailkapenetatik eratorritako bigarren mailako tipologiatzat har dezakegu.

Horrela arestian esandako tipologia estatistikoan oinarrituz zazpi hiztun multzo horiek hiru multzo handietara ekartzen dira. Hau da, beharbada, sailkapenik hedatuena eta erabiliena, *Soziolinguistikazko Mapan* (1989):

- EUSKALDUNAK: euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

- IA-EUSKALDUNAK: euskaraz ongi edo nekez ulertu eta nekez hitz egiten dutenak.

- ERDALDUNAK: euskaraz ez ulertu eta ez hitz egiten ez duten pertsonak.

Ikus daitekeenez funtsezko hizkuntz trebetasuna, erabakiorra dena, *mintzarena* da. Euskaraz ondo hitz egin ahal izateak bereizten ditu euskaldunak gainontzeko hiztun taldeengandik. Testuinguru honetan aipagarria *la-euskaldunen* multzoa da tipologia estatistikoan esanahi zertxobait nahasia bazeukan, eratorritako tipologia honetan are nahasiagoa da. Ondo edota nekez bateratzea, itsasontziak zapatatuko kordelekin lotzea bezain ahula iruditzen zaigu. Gure ustez kategoria horren esanahia politikoa baino ez da. Zeozer adieraztekotan hizkuntzaren mugimenduak adieraz ditzake baina maila berean galerak eta irabaziak abadagunearen arabera.

Arestian esan dugunez hizkuntz politikan hau da gehien erabiltzen den tipologia, seguru asko oso malgua delako. Gure ustetan malgua baino kamutsa da; hots ez da batere zorrotza errealitate soziolinguistikoa bere hartan antzeman ahal izateko. Onartu behar dugu, oster, oso interesgarria dela metodologiaren ikuspegitik ikusteko nola aldatzen diren pertsonen erantzunak *balioztapen* inkestak egiten direnean (EUSTATEk 1989).

Tipologia estatistikoari atxikiturik, behingoz badugu behintzat gutxienezko hiztunen sailkapena, 39 hain zuzen ere, baina ez da hemen amaitzen, orain hiztun mota horiek udalerrri jakin batean nola banatzen diren aztertzen badugu, orduan udalerrrien sailkapen bat (edo hamaika) egin dezakegu.

Esaterako behin edo birritan aipatutako *Soziolinguistikazko Mapan* (1989) agertzen direnak, hala nola, *udalerrri erdaldunduak / euskaldunduak*, *berreskurapen biziko / moteleko*

«*Ia-euskaldunen multzoak hizkuntzen arteko mugimendua baino ez du adierazten*»

«*Euskaldunak batez beste gero eta gazteagoak izatea zantzu positibo bezala ulertu behar dugu*»

«Euskara dagoeneko zaharren hizkuntza izatetik gazteen hizkuntza izatera igaroa da.»

udalerriak, galera galgatu / etengabea, ... Gure ustetan arlo horretan erabili ohi diren sailkapen guztiei izaera politikoa datxikie, sailkapen guzti horien funtsa hizkuntz politikaren ihardueran baitatza.

Dena den badira beste sailkapen asko, ezinezkoa izango litzateke guztiak hona ekartzea, zein baino zein interesgarriagoa eta ulergaitzagoa direnak. Sailkapen bakoitzak ñabardura bat azpimarratzen du, aldagai bat alegia. Eta aldagaiaz hitz egi-terakoan sailkapen guztiak osatzeko aldagai sozio-ekonomiko-kulturalak txerta diezazkiokegu dagokion sailkapenari eta orduan sekula baino argiago ikusiko dugu sinpletasuna (*partsimonia*) beharrezkoa dela.

Elebidun funtzionala, euskaldun elebakarra, euskaldun berri aktiboa, ... berreskurapen biziko udalerriak, eutsi indar handikoak, ... Guztiak oso interesgarriak eta azterketa eta ikerketetarako liluragarriak. Haatik, horietako gutxik azaltzen du euskararen benetako egoera eta are gutxiagok argitzen du hizkuntza zaharraren etorkizuna.

Zenbatutako hiztunak

Aurreko hori guztia kontutan hartuz EUSTATEk luzatutako datuen azterketan murgilduko gara. Hasteko, **II. Taulan** funtsezko hiru hiztun taldeek izandako bilakaera aurkezten dizuegu.

II. Taula: Funtsezko hiztun taldeen bilakaera. 81, 86, 91 urteak

URTE	HIZTUN TALDEAK			BIZTANLERIA ETA HAZKUNDEAK
	EUSKALDUNAK	IA-EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK	
	Orotara %	Orotara %	Orotara %	Orotara $n_{t,t+5}$
1981	447.776 21,56	300.394 14,47	1.328.278 63,97	2.076.448
1986	513.804 24,58	364.162 17,42	1.212.029 57,99	2.089.995 13.547
1991	542.387 26,22	350.454 16,94	1.176.086 56,84	2.068.927 -21.068

Euskaldungoaren garapena 1981-91, funtsezko joerak

EUSTATEk emandako datuak baino ez baditugu aztertzen ere, EAEko euskaldungoa Euskal Herri osoan duen pisu demografikoa jakinda bertan antzemandako joerak, oro har, baliagarriak direlakoan gaude. Gure datu-iturriak, beraz, zuzenak izan dira, 1981, 1986 eta 1991ko Zentsu/Udal Errolde-tatik aterak hain zuzen ere. Azterketa demolinguistikorako bigarren mailako hiztun tipologia erabiltzen dugu, *euskaldunak*, *ia-euskaldunak* eta *erdaldunak* alegia. Gure asmoa, hamar urtetan zehar hiztun talde horiek izandako bilakaera jakitea, eta aldi berean, adin talde ezberdinetan izandako aldaketak eta hiztun talde bakoitzaren barne egitura aztertzea izan da..

J.I. Ruiz de Olabuenaga soziologoak (1983an *Mapa Sociolingüístico Vasco*), *euskara nekazal eta arrantzale giroko gertaera* bezala definitu zuen. Harez geroztik, euskararen berreskurapenaren bidez euskara udalerri eta hiri handietara zabaltzen ari da bere eragina. Haatik ezin esan daiteke euskara egun *kaletarren* hizkuntza denik.

Edozein azterketa demolinguistiko egin aurretik gizarteak izandako aldaketak ezagutu behar dira, azterketa demografikoa egin beharra dago alegia. XX. mendean gure gizarteak aldaketa sakonak ezagutu ditu, hau da, I. Larrañagak aztertu duen moduan aldaketak, bortitzak eta leunak, ez dira gertaera berriak gure artean. Hirurogei hamarkadako industrializazio eta populazio hazkundeak handik hogeiren bat urtera bere goia jo zuen. Egun krisialdiz krisialdi biztanleriaren hazkundearen eten egin da, biziraupen itxaropena luzatu eta berezko hazkundeak sekulan eman ez den proportzioetaraino jaitsiak dira. Europako herrien artean gurean jaiotza tasarik txikienetakoa omen da.

Hauguztia, aldaketa demografikoak aztertzeak, euskararen berreskurapenerako funtsezkoa dela soziolinguista guztiek aitortzen dute. Era berean jakina da ere euskararen berreskurapena ezin izan daitekeela berezko prozesua. Berezko prozesu bezala planteatu ezker euskararenak urte gutxitan eginga du eta, hori da, hain zuzen ere, Euskal Herriko zenbait lurraldetan gertatzen hasia dena (Zuberoan,...). Euskarari eustekotan *ihardueragidatua* edota *herri mugimendu* sendoa behar dugu; gure ustez biak dira ezinbestekoak.

Euskararen berreskurapen prozesua kualitatiboki *hizkuntz funtzioen* berreskurapenari lot badakioke ere, prozesuaren norabideaz askoz ere esanguratsuagoak dira alderdi demolinguistikoak. Hiztun kopuruaren aldakortasuna eta hiztun

«Euskaldunen
belaunaldi berriek
aurrekoek baino
lehenago ikasten dute
gaztelera. Gizaldi
zaharretako euskal-
dunek haurtzaroa
euskara hutsean
ematen zuten»

«Euskaldunen
elebiduntze goiztia-
rrak ezkor eragiten
du euskararen
erabileran»

multzo horien ezaugarri soziodemografikoak dira, besteak beste, bilakaera horren deskribatzailerik adierazgarrienak. Nolanahi ere, gure *hizkuntzen arteko ukipen egoera* honetan zenbatzen diren hiztun bakarrake euskaldunak izanik, biztanleria *binakatu* egiten da, hots, bi hiztun multzotan banatu. Gure kasuan hirugarren multzoa izanagatik, ia-euskaldunak, horrek *hizkuntzen arteko mugimendua* baino ez du adierazten. Hiztun multzo horiek nolakoak diren jakin ezkerro, berreskurapenaren norabideaz gehiago ezagut dezakegulakoan aldagai esan-guratsu bat hautatu dugu: adina. Printzipioz denboran zehar *hiztun taldea zahartzeak*, hizkuntzaren atzerapausoa adie-raziko luke, *gaztetzen den hiztun taldeak*, berriz, hizkuntza berreskuratzen ari den seinaleztat hartzen dugu.

III. Taula: Hiztun taldeak eta haien batezbesteko adinak

URTEA	EUSKALDUNAK	IA-EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK	BIZTANLERIA
1981	36,80	24,80	33,44	32,92
1986	36,00	24,02	37,85	34,99
1991	35,57	24,45	41,72	37,19

«Gazteen artean
alfabetatuak direnek
besteek baino joera
handiagoa erakusten
dute euskaraz aritze-
ko hiztun garatua-
goak direlako»

Horrela batez beste, *euskaldunak* gero eta gazteagoak izatea zantzu positibotzat hartu behar dugu. Baina, jakina, bata gaztetzeak bestea zahartzea dakar *ukipen egoera* zio. Dena den gertaera hori, III. Taulan beha daitekeena, *puztuta* dago *ia-euskaldunak*, beti *gazteak*, erdaldungotik atereak izanik, azken hiztun talde horri batezbesteko adina nabarmenki igo arazten diotelako. Aipatutako hau aztertzen dugun prozesuaren beste ezaugarri bat baino ez bada ere, gure ustez oso kontutan hartu beharrekoa da. Hala ere lan honetarako *adinari* lotutako beste alderdi batzuk gehiago interesatzen zaizkigu.

Euskaldungoaren banaketa hizkuntzaren egoera zehazteko bide bat izateaz gain, izan daitezkeen joeren-adierazle egokia da. Euskararen *ezaguerak* banaketa berezi bat erakusten digu.

Ondorengo *maiztasun poligonoetan* adinaren arabera haustura antzeman daiteke. Euskaldunen artean ohiko hiru

multzo berezi ditugu, *alfabetatuak*, *partzialki alfabetatuak* eta *alfabetatu gabekoak*; hiru multzo horiek bitan bana daitezke, alfabetatuak eta besteak alegia. Aurrera begira, euskara normalizatu ahala, *partzialki alfabetatu* eta *alfabetatu gabekoen* multzoak txikiagotuko dira, gazteenetan horrela ikusten da. Izan ere erdaldunak euskalduntzearekin batera alfabetatzen baitira, baita jatorrizko euskaldunak euskal eskolaren bidetik ere.

*«Euskal Herriko
hizkuntz egoerari
lotuta hitz gako bi
proposatuko geni-
tuzke: aniztasuna eta
aldakortasuna»*

Gazteen artean izandako hazkundeak, erabilera eta hizkuntz ohituren alorrean aldaketa sakonak ekarri behar ditu. Arestian esan dugunez, euskara dagoeneko zaharren hizkuntza izatetik gazteen hizkuntza izatera igaro da. Haatik erabilerari buruzko datu-bilketek eta azterketek ez dute ematen oraingoz aldaketa horren zantzurik.

Darabilgun informazioa, gogoan izan, 1991ko zentsuko datuetatik zuzenean aterata dagoela. Hurrengo diagramakoa euskaldunek Errolda Orrian *aitortutako etxeko euskararen erabilerari* dagokio. Kasu honetan, ordenatuetako zenbakiak ehunekotan eman ditugu. Horrela adin talde bakoitzari dagokion

*«Ezarritako hizkuntz
askatasuna deituriko
honetan euskaltzaleok
beti erne ibiltzen
kondenatuta gaude,
are gehiago, egoera
okertzen denean gure
errua dela esaten
digute eta»*

etxeko ohizko hizkuntzaren (euskara) erabilera-tasa beha daiteke. Honek ez du adierazten hiztun jakin batek zenbatetan egiten duen euskaraz, baizik eta adin taldekoen artean ehuneko zenbatek aitortzen duen euskaraz egiten duela. Dena den, lehen bezala honetan ere euskaldungoa bitan bana daiteke. Batetik 35 urtetik beherakoak, hauen artean erabilera tasa % 75ekoa baino txikiagoa izanik eta, bestetik, 35 urtetik gorakoak euskararekiko atxikimendu handienekoak hain zuzen ere.

«Asimetri demolinguistikoa euskararen kontrakoa izanik OHOk 14 urte bitarte derrigorrezkoa denak -laster 16 urte bitartekoa- berebiziko garrantzia duela dudarik ez dago»

Adin talde gazteenetan alfabetatuen artean ematen dira euskararen erabilera tasarik onenak. Helduen artean, ostera, alfabetatua izateak ala ez, ez du eragiten etxeko ohiko hizkuntzaren erabileran.

Oro har euskaldunak gero eta gehiago, gero eta gazteago eta gero eta goiztiarrago elebiduntzen diren hiztunak dira. *Jatorrizko hizkuntzaren* arabera erraz antzeman daiteke *aldibereko elebidunak* izateko joera. Euskaldunen belaunaldi berriek aurrekoek baino lehenago ikasten dute gaztelera; gizaldi zaharretako euskaldunek haurtzaroa euskara hutsean

ematen zuten. Honek, dudarik gabe, badu bere eragina adin talde bakoitzak erakusten duen hizkuntz portaeran.

IV. Taula: Hiztun taldeak eta haien batz besteko adinak

«Okerrena, ez da eredu desberdinetan lor daitezkeen emaitzak. Izan ere orain artekoak orokorrean hartuta oso baikorrak baitira; okerrena, sistema horretan ezarri den aldakortasuna da. Hau da orain arte A - B - D hurrenkerako bilakaera eman bada ere nork ziurta dezake etorkizunean horrela izango denik?»

Etxeko hizkuntza euskara daukatenak gazteak baino, *euskaldun helduak* dira. Euskaldunenelebiduntzegoiztiarrak negatiboki eragiten du euskararen erabileran. Izan ere ez daukagu inolako arrazoirik euskararekiko atxikimendua gazteengan helduengan baino txikiagoa dela azaltzeko. Hiztun mota ezberdinak izateak azalduko luke, neurri batean behintzat, behatutako ezberdintasuna. Horrela, gazteen artean alfabetatuak direnek besteek baino joera handiagoa erakusten dute euskaraz aritzeko, *hiztun garatuagoak* direlako.

Dena den gure ikuspegia gehiago zehaztu nahian Euskal Herriko hizkuntz egoerari lotuta *hitz gako* bi proposatuko genituzke: aniztasuna eta aldakortasuna. Aniztasuna administrazio, lege eremu eta zonalde linguistikoei begira. *Corpusaren* behin betiko batasunaren oinarria, euskara batua, ezarria badago ere euskararen *hizkuntza estatusa* udalerriz udalerriz, ia zonaldez zonalde, ezberdina baita. Euskal Herri osorako plangintza orokor batek nekez hel liezaioke hizkuntz egoeraren aniztasunari euskarak pairatzen duen *hizkuntzen arteko asimetriari* aurre egin gabe; batez ere, oinarritzko diseinua *irekia* denean. Euskal Herrietako lege eta arauak, daudenean, faktore askoren menpe uzten dute prozesuaren norabidea;

askoren ahotan dabilen *norbanakoaren askatasuna* egoeraren aldakortasunaren isla da baino ez da.

Zuzenean eta zeharka euskararen etorkizuna, hiztunen eskuetan dagoela esan ohi da, euskaldunengan batik bat. Egia esan, orain arte horrela izan da, urteroko matrikulazio kanpainak, helduen euskalduntze-alfabetatzea, euskararen aldeko mugimenduak, udalerri askotako elkarte berriak, euskal aldizkariak, egunkaria, laburbilduz euskaltzaleen militantziak prozesuaren *jarraikortasuna* euskararen alde jarri du. Horiek gabe prozesuaren norabidea bestelakoa izan zitezkeen. Ezarritako *hizkuntz askatasuna* deituriko honetan euskaltzaleok beti erne ibiltzera kondenatuta gaude, are gehiago, egoera okertzen denean gure errua dela esaten digute eta.

«Egungo hezkuntza sistemaren diseinuak berak urratutako bidea atzera ibiltzeko aukera bere baitan gordea dauka. Kataluniako ereduarekiko funtsezko desberdintasuna; han, indarrean dagoen diseinua dela eta katalanaren berreskurapena prozesu jarraikorra da ezinbestean»

Bestalde, egia da kasu askotan legeak ezartzen duena ere ez dela betetzen. Lege eta arauak, berez, ez dute ezer gauzatzen, joko-arauak baino ez baitituzte definitzen. Aitor dezagun bada legea eskuetan hartuta oraindik gauza asko lortzeke dagoela. Baina ez dago indarrik legeak ezartzen duena betearazteko, hori legea dagoenean jakina; horrexegatik herri mugimendua ezinbestekoa da.

Asimetri demolinguistikoa euskararen kontrakoa izanik Oinarrizko Hezkuntza Orokorra 14 urte bitarte derrigorrezkoa izateak -laster 16 urte bitartekoa- berebiziko garrantzia duela dudarik ez dago. Indarrean dauden *hizkuntz ereduak* (A, Beta D) ebaluatutako izan dira eta, A-k ez du balio euskalduntzeko eta, Bereduen nahas-mahasian ez dago esaterik zehaztasun osoz emaitzak zeintzuk diren. Badirudi zonalde euskaldunetan eta *euskararen aldekoa* denean balio dezakeela, aitzitik, gainontzeko kasuetan ez. Azkenik D, benetako eredu *euskalduntzailearen*, eta honen baliokideak diren ereduaren hazkuntza oso aberasgarria da, baina etengabekoa izanik ere oso motela dela iruditzen zaigu.

Okerrena, oster, ez da eredu ezberdinetan lor daitezkeen emaitzak, orain artekoak orokorrean hartuta oso baikorrak baitira; okerrena, genion, sistema horretan ezarri den aldakortasuna da. Hau da, orain arte A - B - D hurrenkerako bilakaera eman bada ere nork ziurta dezake etorkizunean horrela izango denik? A ereduaren berpiztea egun hipotesi hutsa baino zeozor gehiago denean *prozesuaren jarraikortasuna* oso hauskorra dela antzeman daiteke.

Azken buru, egungo hezkuntza-sistemaren diseinuak bere baitan gordea dauka urratutako bidea atzera ibiltzeko aukera.

Hori da, gure aburuz, Kataluniako ereduarekiko funtsezko ezberdintasuna; han, indarrean dagoen diseinua dela eta katalaneraren berreskurapena prozesu jarraikorra da ezinbestean; biziagoa edo motelagoa izan daiteke baina antolatutako hezkuntza-diseinuak ez du atzera jotzeko aukerarik uzten, *katalanizazioa* ezinbestekoa da.

Euskaldunak 1981, 86, 91

Gure aztergaiari berriro helduz, hizkuntza gutxiagotuaren berreskurapenerako, lehenik eta behin berritze demo-grafikoaren berezko indarrak euskararen alde jarri behar dira. Neurri batean hori bideratuta dago, gazteengan baitago euskaldun kopururik zabalena eta, aldi berean, proportziorik handiena. Hala ere ez dugu uste nahikoa denik. Helduen artean eragitea, ahalik eta gehienak euskalduntzea, alfabetatzea eta euskararen aldeko jarrerari goren mailan eustea funtsezkoa baita hizkuntzen arteko *asimetriari* aurre egin ahal izateko.

«Helduen artean eragitea, ahalik eta gehienak euskalduntzea, alfabetatzea eta euskararen aldeko jarrerari goren mailan eustea funtsezkoa da hizkuntzen arteko asimetriari aurre egin ahal izateko»

V. Taula: Euskaldungoaren banaketa adin taldeka. 81,86,91 urteak

ADINA	EUSKALDUNAK					
	1981		1986		1991	
>15	92730	20,71	111798	21,76	117529	21,67
16-19	33293	7,44	42275	8,23	53645	9,89
20-24	32968	7,36	42950	8,36	44266	8,16
25-29	28775	6,43	39005	7,59	42699	7,87
30-34	29818	6,66	31560	6,14	37421	6,90
35-39	26435	5,90	31723	6,17	30426	5,61
40-44	24418	5,45	27704	5,39	30377	5,60
45-49	30914	6,90	24885	4,84	26146	4,82
50-54	31785	7,10	31345	6,10	23512	4,33
55-59	28944	6,46	31555	6,14	29019	5,35
60-64	23980	5,36	28133	5,48	28976	5,34
65-69	21852	4,88	22433	4,37	25599	4,72
70 <	41864	9,35	48438	9,43	52772	9,7
GUZTIRA	447.776	100,00	513.804	100,00	542.387	100,00

Euskaldungoaren banaketa adin taldeka aztertzeke, bi eratara irakur dezakegu taula. Ikus daitekeenez muturretako adin tarteak ezik gainontzekoak 5 urtetako zabalera berekoak dira, Zentsu eta Udal Errolden arteko urte kopuru bera hain zuzen ere¹. Horrela 1981ean 16-19 urte bitartekoak zirenak handik bost urtetara (1986ko Udal Errolda), 20-24 adin tartean bilatu beharko genituzke. Hots, aldaketarik eman ezean *estatistikoki* kopuru beretsuak behatu beharko genituzke batean eta bestean. Horrelakoetan biztanleriak hamar urte horietan izandako aldaketak -edo aldaketa ezak- kontutan hartuz, gazteen artean bederen, migrazio mugimenduek eta heriotza tasek ez dugu uste eragin handia daukatenik edo zehazkiago, balizko eragin hori ez dela *estatistikoki esanguratsua*.

«Hamar urteren buruan, euskaldungoaren barne egitura adinaren banaketarekiko zertxobait aldatu da: muturren pisua (gazteenak eta zaharrenak) areagotu egin da gizartearen adin talde eraginkorrenen kalterako»

Horrela kopuru *gordinak* lerroz lerro (Zentsu-Udal Errolda-Zentsu) erkaturik momentu bakoitzean adin talde bakoitzak izan dituen aldaketak beha ditzakegu. Portzentaiek, beste alderditik, euskaldungoa adin taldeka une jakin batean nola banatzen den adierazten digute. Adibidez 1981eko 15 urtetik beherako euskaldunak euskaldungo osoaren % 20'71 ziren, 1986ko euskaldunak adin tarte berean % 21'76a ziren eta 1991koak, kopuruz aurrekoak baino gehiago izanarren proportzio txikiagokoak ziren, % 21'67a hain zuzen. Hamar urteren buruan, beraz, euskaldungoaren *barne egitura* adinaren banaketarekiko zertxobait aldatu da: muturretan pisua (gazteenak eta zaharrenak) handiagotu egin da gizartearen adin talde eraginkorrenen kalterako.

Ondorengo irudian *barne egitura* horren islada ekarri nahi izan dugu. Gazteenen adin taldeak duen pisua bosten bat baino handiagoa izaki baztertu dugu adinarekiko banaketa hobeto antzeman dadin. *Ordenatu*etan adin tarte bakoitzari dagokion ehunekoa jarri dugu, orotara % 4 eta % 12 artekoak, eta *abzisetan* adin tarteak.

(1) 1986.eko Udal Erroldari buruz: Errolda-Berrikuntzaren erreferentzi data 1986ko Apirilaren 1eko 0 orduak dira. (Hezkuntza eta Euskara EUSTAT 1988). 1991n beste aldetik: Erreferentzi data eta ordua 1991ko martxoaren 1eko 0 orduak ziren. (Hezkuntza eta Euskara EUSTAT 1994).

Ikus daitekeenez 1981, 1986 eta 1991ko banaketak oso antzekoak dira. Gazteen artean (16-19 eta 20-24 bitartekoetan) izandako gorakada garbi antzeman daiteke, hortik aurrera hiru urteotan behatutako banaketa oso nahasia da, urte ezberdinetako lerroak gainjartzen dira eta. Honetan, aztertzekoa da 1981eko 40-44, 60-64 bitarteko multzoaren bilakaerak. Oso argi antzeman daiteke aurreneko urte horretan euskaldungoan multzo horrek zuen pisua, tontor itxura hartzen duen lerromakur hori; era berean oso argi beha daiteke ere nola multzo horrek bereari eutsiz, batetik, eragin erlatiboa galdu duen gazteenen mesederako eta, bestetik, desagertze zorian dagoen zaharrenen multzoa irentsia izateko. Azken honek, zaharrenen multzoak, oraindik oso proportzio esanguratsua agertzen du, baina, tamalez, adinaren poderioz ez du gizartean behar adinako eraginik. Agian euskaltzaleok aurkitu beharko genuke bide bat hiztun horiek hizkuntz berreskurapen prozesuan eraginkorragoak izan daitezen. Egoera *normalizatu* batean banaketa honek hartuko lukeen itxura biztanleriaren adin banaketari dagokiona izango litzateke.

*«Egoera normalizatu
batean banaketa
honek hartuko lukeen
itxura biztanleriaren
adin banaketari
dagokiona izango
litzateke»*

V. Taulari berriro helduz lerroz lerroko irakurketa eginez badirudi euskaldunen kopurua handitu egiten dela adin talde gehienetan. Izatez horrela da batez ere adin talde gazteenetan.

«Horrelako irakurketa egiterakoan belaunaldi edo mordo ezberdinen arteko erkaketak egiten ari gara. Adin talde edo mordo bakoitzaren azterketari lotuz gero gauzak bestelakoak izan daitezke. Dena den horretarako adin tarteak zabalera berekoak behar ditugu, bost urtetako zabalera hain zuzen.

Hala ere horrelako irakurketa egiterakoan belaunaldi edo mordo ezberdinen arteko erkaketak egiten ari gara. Adin talde edo mordo bakoitzaren azterketari lotuz gero gauzak bestelakoak izan daitezke. Dena den horretarako adin tarteak zabalera berekoak behar ditugu, bost urtetako zabalera hain zuzen.

Demagun 1981eko 16-19 urte bitarteko 33.293 euskaldunak (**V. Taula**) handik bost urtetara, 1986an, **V. Taula** kobehoko lerroan 20-24 urte zituztelarik 42.950 zirela eta, beste bost urte geroxeago, **V. Taula** hurrengo errenkadan, 25-29 urte bitartekoan 42.699 euskaldun zeudela. Horrek adieraziko luke mordo horretan 1981-86 delako epean euskaldunen kopurua 8657 hiztunetan handitzen dela, baina 1986-91 epealdian 251 galdu. Hobeto ikusteko honako taula hau eratu dugu:

Taulan 1981, 1986 eta 1991ko euskaldunak, hurrenez hurren, dagokien urteko euskaldungo osoaren % 65,06, % 68,81 eta % 58,71 dira. Nolanahi ere euskaldunen gehiengoak kasu guztietan. Eskuin aldeko zutabeetan, aztertzen ari garen tarteetako irabazi/galerak agertzen dira; **81-86 epealdian, galdutako euskaldunak, adin tarte zaharrenetan ematen dira, 50-54 urteetatik aurrera, 2.587 hiltun, eta multzo horrekiko erlatiboki kopuru txikia da** eta, hiltun galerak zio *naturalak* (heriotzak, ...) eragindakoak direla pentsatzera eramanez. Epealdi berean irabazitakoak -22.551 hiltun-, oster, guztiak helduak izanik ezin pentsa daiteke berezkoak direnik, horiek, **duda izpirik gabe euskaldun ikasiak dira, euskaldun berriak** alegia. Baldin eta gure datuen arabera 81-86 epealdian 66.028 euskaldun gehiago lortu baziren horietatik helduen euskalduntzearen ekarpen zuzena % 34'15a dela estima daiteke. Horrela helduen euskalduntzeari esker 81-86 epealdiko hazkundearen heren bat baino gehiago azal daitekeela azpimarratu nahi dugu.

Ondorengo bost urteetan (86-91) helduei dagokienez, aldageta kualitatibo sakona soma daiteke. Aurrenik aitortu dezagun bost urte hauetan euskaldungoa ere hazi dela, 28.583 hiltun gehiago hain zuzen, baina hazkunde horren banaketa bestelakoa dela begibistakoa da. Helduen artean, 1986an 16 eta 64 urte zituztenen artean, galerak dira nagusi. Irabazitakoak 1991 baino ez dira eta guztiak adin tarterik gazteenetakoak, galdutakoak, berriz, 14.685. Hau da, aurreneko epealdian helduen euskalduntzeak *irabazitako euskaldunetatik % 34'15a* ekarri bazuen ere, bigarren epealdian -86/91- irabazitako 28.583 hiltunetatik helduen euskalduntzeak % 6'97a (1991 heldu euskaldun berri) baino ez du azaltzen. Zergatatu da? Gu ere helduen artean izandako *euskaldun galerak* ikusita harritu egin gara, benetan ulergaitza baita horrenbeste galera azaltzeaz *demografikoen* eraginez soilik. Nola ote 1986ko 20 eta 64 urte bitarteko 288.860 euskaldunetatik % 5'08a 1991. urterako galtzea? Behin eta birritan aztertu ditugu gure datuak prozeduran oker geundelakoan baina ez dugu akatsik aurkitu, badirudi horrela dela. Ikergai interesgarria. Nolanahi ere helduen euskalduntzeak berreuskalduntze prozesuan indarra galdu duela oso nabarmena da.

Ariketa labur bat egiten badugu agian hobeto ikus genezake; demagun 81-86 urteak bitartean *euskaldun ikasiak*, 22.551, helduen euskalduntzearen ondorio zuzena direla. Demagun ere hurrengo epealdian 86-91 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria ez dela aldatu, eta egia da ez dela gehiegi aldatu. Orduan

«81-86 epealdian
66.028 euskaldun
gehiago lortu baziren
horietatik helduen
euskalduntzearen
ekarpen zuzena %
34'15a dela estima
daiteke. Horrela
helduen
euskalduntzeari esker
81-86 epealdiko
hazkundearen heren
bat baino gehiago
azal daitekeela
azpimarratu nahi
dugu»

«Bigarren
epealdian -86/91-
irabazitako 28.583
hiztunetatik helduen
euskalduntzeak %
6'97a (1.991 heldu
euskaldun berri) baino
ez du azaltzen»

aurreko epealdian beste *euskaldun berri* espero genezake, are gehiago 86-91 tarteaneuskararen aldeko *hizkuntz politika* areagotu dela pentsatuko bagenu. Zehatzago, adin talde bakoitzean 81-86 tartearen behatutako hazkuntza proportzioari eutsi izan balitzaio 86-91 epealdirako 29.600 *euskaldun berri* edo gehiago espero genezakeen. Tamalez hori horrela izan beharrean erabat alderantzizkoa izan da; 12.694 *euskaldun heldu* galdu baitira.

Beste idazkera mota erabiliaz honela planteatu genezake:
(1.1) ekuazioa

«Helduen
euskalduntzeak
berreuskalduntze
prozesuan indarra
galdu duela oso
nabarmena da»

Urte desberdinetako *euskaldungoaren* adin taldeak X_i , Y_i eta Z_i 1981, 1986 eta 1991 urteetako multzoei izendatu diegu. Azpindizeak i dagokion adin taldea izendatzen du eta, k dagoen adin talde kopurua. Guk darabiltzagun datuetan (EUSTATEk emandakoak) 13 tarte baino ez daukagu, beraz $k=13$ izanik $i-k$ 1 eta 13ren arteko balioak har ditzake. Indize horiek dira *batukarietan* erabiltzen ditugunak. Esaterako $i=2$ eta $k-2$ direlako indizeek 16-19 tartetik 60-64 tarterainoko aldea adierazten du, batukaria izateak tarte horien arteko *taldeen* batuketa egin behar dugula esan nahi du.

Hortik abiatuta VI. Taulan emandako datuei atxikiz 81-86ko eta 86-91ko hazkundeak honela adieraz ditzakegu: **(1.2) ekuazioa**

Orotariko hazkuntza $i=1$ eta $k=13$ tarteen arteko *taldeen* batukarien arteko kendura, $(1,2)$ ekuazioetan aurrena da. *Helduen arteko hazkuntza*, $(1,2)$ ekuazioetan behekoak, $i=2$ eta $k=11$ tarteen arteko *kenduren batukaria* da. Kenketak burutzerakoan kontutan har multzo bereko (belaunaldi jakin bateko) taldeen artean egin beharra dagoela. Hortaz i azpi-indizeak *tartea* adierazten badu bigarren aldikotarte $i+1$ da eta, horien artean, kalkulatu behar ditugu diferentziak. Horiek dira zehatz-mehatz, VI. Taulan egindako eragiketak.

Aurreko ekuazioan, hain zuzen ere behin oinarriak ezarrita, orain *hazkuntzaren osagaien* azterketari lotuko gatzazkio. Hasgaitezen 1981-86 epealditik: **(1.3) ekuazioa**

«Aurreneko epealdian helduen euskalduntzeak irabazitako euskaldunetatik %34'15a ekarri bazuen ere, bigarren epealdian -86/91- irabazitako 28.583 hiztunetatik helduen euskalduntzeak %6'97a (1991 heldueuskaIdunberri) baino ez du azaltzen»

Ikusten denez batukaririk Y_1 , Y_2 eta Y_{13} *batukinak* atera ditugu. Horrela (1.2) ekuazioan aurrekoa ordezkatu eta garatuz: **(1.4) ekuazioa**

Azken buru *hazkuntzaren* gehikuntza hiru osagaiz azal daiteke, parentesi artean zein bere aldetik isolatu ditugunak alegia. Aurreko bi ekuazioen arteko urratsan X_j -ren batukariak desagertzen direlarik gainontzeko *batukinak* adin tarteen arabera berrantolatatu ditugu. Egindako deskonposaketa eginda ere are xeheago egin daitekelakoan gaude. Batetik bereiz dezagun edozein biztanleriari, euskaldungoari ere, dagokion

berezko hazkuntza. Bestetik X_1 , gure kasuan 1981eko 2-15 urte bitarteko euskaldunak, bi multzotan bana genitzake, 1986 urtean 7-15 urte bitartekoak ziratekeenak eta gainontzekoak, 1986an 16-19 urte bitartekoak ziratekeenak alegia. Horretarako adin taldeen proportzio banaketa zein nolakoa den ikusirik honela egin genezake: $X_1 = 2/3 X_1 + 1/3 X_1$.

Horrela: (1.5) ekuazioa

«Nola ote 1986ko 20 eta 64 urte bitarteko 288.860 euskaldunetatik %5'08a 1991. urterako galtzea?»

Ekuazioan agertzen diren moduan, aurrena, adin talde gazteenetan emandako hazkuntza; honetan deskonposaketa berri bat egin dugu: euskaldungoaren *berezko hazkuntza* eta *hezkuntza elebidunari* dagozkion bi faktoreak hurrenez hurren. Hurrena adin talde zaharrenetan ematen den *hazkuntza*; izan ere urte jakin batean 65-69 urte bitartekoak (X_{12}) direnak handik bost urtetara 70 urte baino gehiagokoak (Y_{13}) izan behar baitute. Eta azkenik, arestian aipatu dugun *helduen euskalduntzeak ekarritakoa*, lehen azaldu duguna hain zuzen ere.

Orain 1986-91 epealdirako: **(1.6) ekuazioa**

Dagoeneko *hazkuntzaren osagai nagusiak* isolatu ditugu baina oraindik ere gehiago xehe dezakegu, alderdi batetik, *gazteenen hazkuntzan*, *berezko hazkuntza* eta *hezkuntzari egotz dakiokeena bereiztuz* eta *helduen euskalduntzeak ekarritako hazkuntzan*, irabaziak eta galerak bereiztuz. Oro har, ondorengoak lirateke isolatutako euskaldungoaren *hazkuntzaren osagaiak*:

1. *Berezko hazkuntza*, euskaldungoa *berez* inolako kanpo eraginik gabe *demografikoki* haziko litzatekeena. Informazio osagarriarik ezean ez daukagu inolako arrazoirik biztanleria orokorraren hazkuntza-tasa eta euskaldungoarena ezberdinak

direnik pentsatzeko. Horrexegatik euskaldungoari biztanleria-
ren hazkuntza tasa bera ezarri diogu *berezko hazkuntza*
kalkulatzerakoan.

2. *Derrigorrezko hezkuntzako hiztunen arteko hazkuntza*,
erabiltzen ditugun adin tarteak 2 eta 15 urte bitartean *berezkoa*
ez den hazkuntzari dagokio. Gure ustez egungo Hezkuntz
Sistemari egotz dakioke.

3. *Gazteen arteko hazkuntza*, 16-20 urte bitartekoen artean
estimaturiko hazkuntza. Hau, gure ustez, neurririk handienez
hazkuntzari zor dakioke.

4. *Helduen euskalduntzeak ekarritakoa*, 19 urte eta 59 urte
bitartean euskaldundutakoei dagokie.

5. *Galdutako heldu euskaldunak*, gure kasuan *hazkunde*
negatiboa lehen esandako adin tarte bertan.

6. *Zaharren arteko hazkuntza*, aurreko kasuan bezala
honako hau gehienetan *hazkuntza negatiboa* da eta 60 urtetik
aurreragoko *hiztun galerak* adieraziko luke.

Esandako guztia zenbaki *errealetara* ekarrita:

«Berreuskalduntzea
bi norabidetako
prozesua da. Zenbait
kasutan hiztunak
irabazi (erdaldun-
goaren bizkar) eta
bestetan galdu.
Garrantzitsuena,
ostera, irabaziak eta
galerak non eta nola
ematen diren jakitea
da»

Dagoeneko *irabaziak* eta *galerak* honako taulara ekar ditzakegu:

VII. TAULA: Euskal hiztunen berreskurapena, *irabaziak* eta *galerak* 81/86, 86/91

URTEA	BEREZKO HAZKUNTZA	GAZTEEN AR- TEKO HAZKUN- TZA	HELDUEN AR- TEKO HAZKUN- TZA	Z A H A - RREN AR- TEKO HAZ- KUNTZA	IRABA- ZIAK	GALE- RAK	O R O - TARA
1981-86	2.921	47.057 11.365	22.550 -2.587	-15.278	83.893	-17.865	66.028
1986-91	0	42.997 16.373	1.991 -14.685	-18.099	61.367	-32.784	28.583
GUZTIRA	2.921	92.975 27.738	24.541 -17.272	-33.377	145.260	-50.644	94.706
81/86 86/91 ALDEA	-2.921	-6.981 5.008	-20.559 -12.098	-2.821			

Honela, bada, egindako azterketa honetan *berreskurapen prozesuaren bizitasuna* azaleratu nahi izan dugu. Ez da zehatza esatea lehen baino hainbeste hitun gehiago dagoenik. Hitzunak, euskaldunak zehazki, *jatorrizkoak* (berezko hazkuntza), eskolak ekarrita, bere kasa edo euskaltegietan euskaldunduak,... izan daitezke baina euskaldunak, gainontzeko edozein hitun bezala, hil daitezke (berezko galera), Euskal Herritik aldegin edo, eta gure egoeran eta hori *bakarrik euskaldunei gerta dakieke*, euskara ahaztu eta euskaldun izateari utzi. Ondorioz *berreuskalduntzea* bi norabidetako prozesua da. VII. Taulan agertzen den modukoa, hain zuzen ere, zenbait kasutan hitzunak *irabazi* (erdaldungoaren bizkar) eta bestetan *galdu*. Garrantzitsuenak, osterak, *irabaziak* eta *galerak non* eta *nola* ematen diren jakitea da.

Azkeneko taulan (VII. Taula) 81/86, 86/91 aldeak ez dakendura hutsa, horrekin sail bakoitzean zenbat baino zer egiten den adierazi nahi izan dugu. Hau da, zeinuen arabera berezi ditugu *irabazi (+)* eta *galerak (-)*; bestetik, *berezko hazkuntza* dagokion hutsik utzi dugu, laukitxo horretan hazkuntza beti positiboa baita. Hala ere 86-91 urteetan biztanleria hazi baino urritu egin denez ez dugu erabili kasu honetan aurreko 81-86 epealdirako ezarritako irizpidea. Izan ere, jakin badakigu biztanleriaren orotariko hazkuntza ez datorrela bat ezinbestean jaiotza tasarekin, migrazio mugimenduak izan ohi direla dakigun bezala. Dena den honen xedea ez da bost urteren buruan *jatorrizko euskaldunak* zenbat diren jakitea. *Sinpletasuna* (partsimonia) izan da jarritako oinarria arazo *anitza* eta *konplexua* aztertzerakoan. **Berreuskalduntzea bi norabidetako prozesua da, hitzunak irabazi eta galdu egiten dira.** Euskaldunak *jatorrizkoak*, eskolak euskaldunduak edo beranduago bere kasa edo euskaltegietan ikasitakoak, baina euskaldunak, beste hitzunak bezala, hil, Euskal Herritik alde egin, edo, hitzun *normalizatuak* ez bezala, euskara ahaztu eta euskaldunak izateari utz diezaiokete.

Xabier Isasi Balanzategi
EHU/UPVko irakaslea

Professor at the University of the Basque Country